

LAN-POLTSAK

Oinarri orokorrak

9.5.– Hautaketa prozesu honetatik sortutako zerrendak gehituko zaizkie UPV/EHU n aldi baterako zerbitzuak betetzeko erabiltzen diren lan poltsei. Edozelan ere, errespetatu egingo dira, alde batetik, 2016ko ekainaren 30eko baterako Akordioa, zeinaren bidez adostu ziren sarrera prozesuetako hautapen proben deialdiak arautu behar dituzten gutxieneko irizpideak, eta zehazki haren 4 C puntuko konpromisoa, eta, bestetik, 2017ko uztailaren 18ko Akordioa, Lan Poltsak Eratzeari eta Kudeatzeari eta Lanpoltsetako Kideak Ordenatzeari buruzkoa.

C.- Lan poltsak

2006ko azaroaren 30eko akordioa eta 2010eko martxoaren 26ko akordioa (lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzkoa) aplikatuko dira; lan kontratudun langileei dagokionez, Administrazio eta Zerbitzuetako lan kontratudunen III. Hitzarmen Kolektiboaren 18.2 eta 3 artikuluek ezarritakoa.

Lan poltsen eta hautagaien hurrenkerari dagokionez, Lan Poltsen akordioaren 6.2 artikulua jasotako aurreikuspena arautzeko, III. Hitzarmen Kolektiboaren 18.2 eta 3 artikulua erabiliko dira.

Kontuan izanik aipatutako xedapenak, aurreikusitako Lan Eskaintza Publikoen eraginpean dauden kontratudunen poltsak dagokion deialdiaren ondoren ordenatuko dira, lehentasun irizpide hauen arabera:

- 1 2006ko azaroaren 30eko akordioak jasotako egonkortasun konpromisoak babesten dituen langileak, lan poltsak sortu eta kudeatzeari buruzko 2010eko martxoaren 26ko akordioaren 9.1 artikulua aipatzen dituenak.
- 2 III. Hitzarmen Kolektiboaren 18.2 artikulua arabera, 2006ko azaroaren 30eko akordioaren 3. puntuko lehen atalean jasotako lehentasun hedapena aplikatu behar zaien langileak.

Horri begira, dagokion hautapen prozesuaren deialdiaren data baino lehen zerbitzuak eman dituzten langileek beren ordena mantendu eta lehentasuna izango dute lan eskaintza publikotik datozen langileen aurrean, baldin eta eskaintza horretan mantentzen badira prozesu osoan eta dagokion hautapen prozesuan parte hartu, azterketa egin eta entregatu egiten badute.

- 3 III. Hitzarmen Kolektiboaren 18.3 artikulua eraginpean dauden langileak, 2010eko martxoaren 26ko akordioaren 10.3 artikuluan aurreikusitako efektuei buruzkoa, dagokion poltsako langileak dituenak jomugan, zerbitzuak eskaini dituztenak eskaintza publikoko hautapen proben deialdiaren datatik aurrera eta prozesua amaitu ondoren.

Horri begira, langile hauek aurreko atalean (2) aipatutakoen atzetik kokatuko dira, batura honetatik eratortzen den hurrenkeraren arabera: dagokion hautapen prozesuan lortutako puntuazioa gehi aldi honetan eskainitako zerbitzuen balorazioa (deialdiaren oinarrietan ezarritako hilabetekako

zenbaketaren berdina). Hortaz, dagozkion hautapen probetara aurkeztu, azterketa egin eta entregatu egin beharko dute.

- 4 Lan Eskaintza Publikoaren deialdietatik datozen pertsonak. Deialdi bakoitzean muga bat jarri ahal izango da hautapen prozesua gaindituta poltsan sartzen den pertsona kopuruarentzat.
- 5 Dagozkion poltsako gainerako langileak, 2010eko martxoaren 26ko akordioaren 9.4,9.5, 10.4 eta 10.5 artikuluek ezarritakoaren arabera.

Lan kontratadunen gainerako langileak, 2010eko martxoaren 26ko akordioaren 9. eta 10. Artikuluetan (lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari buruzkoa) edo haren orde z indarrean egongo den arautegiak ezarritako hurrenkera mantenduko dute.

Bete gabe geratutako beharrak eskaintzeko deialdietan, zorroztasunez aplikatuko da lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta lan poltsetako kideak ordenatzeari buruzko 2010eko martxoaren 26ko akordioa, edo haren orde z hartutako besteren bat, C atalean ezarritako hurrenkera errespetatuz beti. Lan poltsetako pertsoneri behar adinako aurrerapenez deituko zaie, hortik sor daitezkeen mugimendu guztiek data berean izan ditzaten eraginak. Lehendabizi, lanpostu "hutsak" eskainiko dira, eta gero gainerako orde zkapenak eta bestelakoak.